

## HITZAURRE

Herritarrek Justiziaren aurrean dituzten Eskubideen Gutuna ageri da, hots, gardentasuneko, informazioko eta arreta egokiko printzipioei erantzungo dien eta Justiziaren erabiltzaileen eskubideak ezarriko dituen Gutuna.

Estatu Itunean begiztatzen diren gardentasuneko, informazioko eta arreta egokiko printzipioak garatu ditu Gutunak lehen partean. Bertan, Justizia Administrazioa herritarrekiko arduratsua izateak duen garrantzia azpimarratzen da; herritarrek Justiziaren funtzionamenduari buruz kezak eta iradokizunak egin ahal izango dituzte, bai eta, behar izanez gero, kalte-ordainak galdatu ere.

Gutunaren bigarren parteak, Justizia Administrazioaren eta babesik gutxieneko herritarren arteko harremanetan arreta eta ardura berezia jartzeko beharrea egiten du indar. Lehenik eta behin, delituaren biktimari erreparatu beharra dago, batez ere etxeko indarkeriaren eta genero-indarkeriaren kasuetan. Bigarren, adingabea hartu behar da aintzakotzat, behar bezala gara dadin eta garapen horretan inolako kalterik jasan ez dezan. Hirugarren, zentzumenetako, gorputzeko edo adimeneko ezgaitasunen bat duten pertsonen emango zaie lehentasuna, komunikatzeko orduan eta eraikin judizialetara sartzeko orduan izan ditzaketen arazoak gainditzeko. Eta azkenik, Espainiako etorkin atzeritarrak hartuko dira kontuan, eta Gutun honetan jasotzen diren printzipio eta eskubideak izango dituztela segurtatuko da.

Hirugarren partean, herritarren eta abokatu eta prokuradoreen arteko harremanetan berariazkoak diren eskubideez arduratzen da Gutuna.

Bukatzeko, Gutuna eraginkorra izateko bete beharreko baldintzei buruzko aurreikuspena egiten da Gutunaren amaieran. Horrela, esate baterako, aitortzen diren eskubideak exijitu ahal izatea eta epaileak eta magistratuak, fiskalak, idazkari judizialak, abokatuak, prokuradoreak eta Justizia Administrazioarekin lan egiten duten gainerako pertsona eta erakundeak eskubide horiei atxikitzea aldarrikatzen da. Halaber, Diputatuen Kongresuko Justizia eta Barne Batzordeari ematen zaio Gutun honen garatzearen eta betetzearen segimendua eta ebaluazioa egiteko ardura.

## I. Justizia moderno eta Herritarrei irekia

### Justizia gardena

- Herritarrak eskubidea du epaitegi eta auzitegien funtzionamenduari eta prozedura judizialen ezaugarri eta eskakizun generikoei buruz informazio orokor eta eguneratua hartzeko.
  - Herritarrarentzako Arreta Bulegoak sortzea eta bulegoak materialez hornitzea bultzatuko da, eta Estatuko lurralde osoan ezartzea segurtatuko.

- Jendearentzako arreta-zerbitzuko ordui buruzko informazioa argi eta erraz ikusteko moduko lekuetan jarriko da jurisdikzio-organoen egoitzetan.
- Herritarrak eskubidea du Espainiako jurisdikzio-organo guztien egoerari eta jardunari buruzko eta bertan izapidetutako eta izapidetu beharreko arazoei buruzko informazio gardena jasotzeko.
- Justizia Ministerioa, justizia-gaietan eskumenak dituzten autonomia-erkidegoak eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia arduratuko dira informazio hori kanalizatzeaz, erraz kontsultatu ahal izateko gardentasun-plan baten barnean.
  - Herritarrak eskubidea du Espainiako eta Batasun Europarreko legeen eduki eguneratua ezagutzeko, datuak erraz lortzeko moduko sistema elektronikoa baten bidez.
- Herritarrak eskubidea du prozedura-legeetan xedatutakoaren arabera bere interes legitimokoak diren prozesuen edukia eta egoera ezagutzeko.
  - Interesatuak eskuragarri izango dituzte izaera erreserbatua ez duten dokumentu, liburu, artxibo eta erregistro judizialak.
  - Agintari eta funtzionarioek idazki bidez adieraziko diote eskatzen duen herritarrari, zein arrazoiengatik ukatzen zaion izaera prozesaleko informazioa lortzeko eskubidea.

### Justizia ulergarria

- Herritarrak eskubidea du zuzentzen zaizkion jakinarazpenak, zitazioak, epatzeak eta errekerimenduak hitz xume eta ulergarri idatzita egon daitezen, beharrik gabeko elementu beldurrarazgarririk gabe.
- Herritarrak eskubidea du zuzenbidean adituak ez diren herritarrek ulertzeko moduko hizkera -beharrezko eskakizun teknikoak errespetatuz noski- erabil dadin judizio eta agerraldietan.
  - Prozesuko egintzak zuzentzen dituzten epaile eta magistratuak eskubide hau babesteaz arduratuko dira.
- Herritarrak eskubidea du idazten diren epai eta gainerako ebazpen judizialak hartzailerek ulertzeko moduan idatziak izateko; horretarako, sintaxi eta hizkuntza-egitura soilak erabiliz idatziko dira, zorrotasun teknikoari kalterik egin gabe.
  - Eskubide hauek egikaritzeko erraztasunak eman beharko dira, abokatuak eta prokuradoreak nahitaez esku hartu beharrik ez duten prozeduretan bereziki.
- Herritarrak eskubidea du, abokatuaren eta prokuradorearen esku-hartzea derrigorrezkoa ez denean, bere eskubideak auzitegietan egikaritzeko beharrezko diren formularioak doan eskuratzeko.

## Herritarrarekiko arretatsua izango den justizia

- Herritarrak eskubidea du errespetuzko arreta eta bere inguruabar psikologiko, sozial eta kulturaletara egokitutako tratua jasotzeko.
- Herritarrak eskubidea du, nahitaez agertu behar duen jardun judizialen kasuan, jardunok ahalik eta puntualtasunik zorrotzenarekin egin daitezela galdatzeko.
  - Herritarra deitua izan den edozein prozesu-jardun atzeratzen edo bertan behera uzten bada, horren arrazoiari berri eman beharko diote epaileak edo idazkari judizialak.
  - Jarduna bertan behera uzten denean, auzitegira joan behar ez izateko adinako denboraz jakinaraziko zaio herritarrari, ezinbestekoren batengatik ez bada behintzat.
- Herritarrak eskubidea du, Justizia Administrazioako organo batean pertsonalki agertu behar duenean, agertu behar hori ahalik eta astuntasunik txikienekoan izan dadin.
  - Legearen arabera ezinbestekoa denean bakarrik galdatu ahal izango zaie herritarrei jurisdikzio-organoei agertzea.
  - Pertsona batek organo judizial berean behin baino gehiagotan agertu behar duenean, jardunak egun bakarrean biltzen saiatuko da beti auzitegia.
  - Jardun judizial batera joateagatik herritarrari kobratzea dagozkion diruzko kalte-ordainak lehentasunez eta albat lasterren izapidetuko dira.
  - Jendea sar daitekeen epaitegi-gelek -esate baterako, itxarongelek, judizio-aretoek edo auzitegietako klinikek-herritarrarentzako arreta egokia segurtatzeko moduko baldintza eta zerbitzuak beteko dituzte.
- Herritarrak egokiro babestua izateko eskubidea du, lekuko gisa deklaratu duenean edota Justizia Administrazioari beste edozein modutara laguntzen dionean.
- Herritarrak eskubidea du beraz arduratzen den agintari edo funtzionarioaren nortasuna eta kategoria ezagutzeko, auzi kriminaletan segurtasun arrazoiengatik bestela ezarri ezean.
  - Datuak erraz ikusteko moduko lekuan egongo dira lanpostuan.
  - Telefonoz erantzuten duenak edo ezagutarazpenak telematika bidez egiten dituenak, beti-beti adierazi beharko dio bere nortasuna herritarrari.
- Herritarrak eskubidea du epaileak edo idazkari judizialak har dezan organo judizialaren funtzionamenduari zerikusirik duen edozein arazo dela eta.
  - Deklarazioak eta lekukotzak, judizioak eta bistak, eta ebazpena eman aurretik alderdiei entzuteko egiten diren agerraldiak, epaileak edo auzitegia aurrean daudela egingo dira, legeetan ezarritakoari jarraiki.

- Herritarrak goizeko nahiz arratsaldeko orduetan hartua izateko eskubidea du, auzien izaera edo bolumenarengatik beharrezko diren auzitegi-geletan, beti ere legean ezarritakoaren arabera.
- Herritarrak eskubidea du, bere Erkidegoko Justizia Administrazioarekiko harremanetan, Erkidego horretako hizkuntza ofizialetatik aukeratuena duena erabiltzeko, eta Botere Judizialaren Lege Organikoan eta autonomia-estatutuetan eta estatutuok garatzeko arauetan ezarri bezala tratatua izateko.

### **Herritarraren aurrean erantzungo duen justizia**

- Justizia Administrazioaren funtzionamendu okerrari buruzko erreklamazio, kexa eta iradokizunak egiteko eskubidea du herritarrak, bai eta horien erantzuna lehenbailehen eta, edozein modutara ere, hilabeteko epean jasotzekoa ere.
  - Epaitegi edo auzitegian bertan, gobernu-organismoetan, herritarrarentzako arreta-bulegoetan, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusian, Justiziako Ministerioan eta, bestela, autonomia-erkidegoetako Administrazioetan aurkeztu ahal izango ditu kexa eta iradokizunak.
  - Eskubide hori telematika bidez egikaritzea bermatzeko sistemak ezarriko dituzte administrazio publiko eskudunek.
  - Eskubide hori egikaritzeko behar diren formularioak Justizia Administrazioako bulego guztietan egongo dira herritarraren eskura, ikusteko moduan eta behar bezala adierazita.
- Herritarrak eskubidea du oker judizialen batengatik edo Justizia Administrazioak anormalki funtzionatzeagatik erantzukizuna galdatzeko.
  - Herritarren edozein ondasun edo eskubidetan egindako kalteek beren ordaina izango dute, eta kaltetuak ordain hori galdatu ahal izango du Legean xedatuta dagoen moduan.
  - Kalte-ordainen erreklamazioak lehentasunez eta bizkor izapidetuko dira.

### **Justizia arin eta teknologia aldetik aurreratua**

- Herritarrak eskubidea du berari dagozkion arazoak arin izapide daitezen; arazo horiek legezko epean ebatzi beharko dira, eta atzerapenik gertatuko balitz, atzerapenaren arrazoi zehatza jakiteko eskubidea izango du.
  - Justiziako Ministerioak eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak aurreikuspenen programa bat egingo dute, jurisdikzio guztietako prozedurek izan behar duten iraupenarekin, eta difusio zabala emango diote programa horri.
- Herritarrak eskubidea du Administrazio Publikoen esku dauden dokumentuak ekartzea galda ez diezaioten, prozedura-legeek berariaz hala ezarri ezean.

- Herritarrak eskubidea du Justizia Administrazioarekin posta elektronikoz bidez, bideo-konferentzia bidez eta bestelako baliabide telematikoz bidez komunikatzeko, prozedura-legeetan xedatutakoaren arabera.
  - Herri-agintariek baliabide horiek erabili eta aplikatzea bultzatuko dute, Justizia Administrazioaren jardunean eta, orobat, Justizia Administrazioaren eta herritarren arteko harremanetan.
  - Justizia Administrazioako organoek eta partikularrek bide elektronikoz eta telematikoz bidez edozein eratako euskarritan igortzen dituzten dokumentuek balio eta eraginkortasun osoa izango dute, baldin eta beren osotasuna eta benetakotasuna legeetan ezarri bezala egiaztatuta geratzen badira.

## II. Ahulenak babesten dituen Justizia

### Delituen biktimak babestea

- Delitu baten biktimak eskubidea du argi eta garbi informatua izateko zigor-arloko prozesuan duen parte-hartzeari buruz, jasandako kaltearen ordaina lortzeko aukerei buruz eta prozesuaren martxari berari buruz.
  - Biktimak bere segurtasunari datxezkion ebazpenak benetan ezagutu ditzala segurtatuko da, batez ere familiako indarkeria-kasuak direnean.
  - Biktimentzako arreta-bulegoen egitekoak sustatuko dira, eta bulego horien eginkizunak gehituko, delituak erasandako herritarrari zerbitzu osoa eman dakion eta zerbitzu hori Estatuko lurralde osoan gauzatzen dela berma dadin.
- Delitu baten biktimak eskubidea du, epaitegi edo auzitegian agertzen denean, bere duintasunaren mailako moduan eta bere intimitatea gordez gauza dadin agerraldia.
  - Biktimak eta erasotzaileak prozedurako edozein jardunen zain daudenean epaitegiko geletan, elkarrekin topo egin ez dezaten hartu beharreko neurri guztiak hartuko dira.
  - Agintariek eta funtzionarioek eskubide honen eraginkortasuna zainduko dute, batez ere etxeko indarkeriaren edo genero-indarkeriaren kasuetan, biktimei behar duten babesa emanaz.
- Delitu baten biktimak eskubidea du epaitegi eta auzitegiek berehala eta modu eraginkorrean babestua izateko, batez ere familiaren eremuan indarkeria fisikoa edo psikikoa eragin dionaren aurrean.
  - Biktima behar bezala babesteko behar diren baliabide teknikoak erabiltzeko modua emango da, hala nola pertsonak lokalizatzen dituzten tresnak, telelaguntzako mekanismoak eta antzeko besteak.
- Delitu baten biktimak eskubidea du bere bizitza pribatuari buruz berak nahi ez duen publizitatearen aurrean babestua izateko era guztietako jardun judizialean.

- Epaille eta magistratuek, eta, orobat, Ministerio Fiskalak, eskubide hau egokiro egikaritzen dela zainduko dute.

### Protección de los menores

- Adingabeak eskubidea du, epaitegi edo auzitegian agertzen denean, bere egoerari eta eboluzio-garapenari dagokien moduan egin dadin agerraldia.
  - Eskubide hau betetzeko hainbat elementu tekniko erabili ahal izango dira, hala nola telebista-zirkuitu itxiak, bideo-konferentzia edo antzekoak.
  - Adingabeak Justizia Administrazioiko organoetan behin eta berriz agertu beharrik ez izatea saiaturiko da.
- Zentzu nahikoa duen adingabeak eskubidea du bera zuzenean inplikaturik dagoen prozesu judizial orotan entzuna izateko, ebazpena bere ingurune pertsonal, familiar edo sozialari erasaten dion erabakia bada. Halaber, eskubidea du jardun judizialak berak ulertzeko moduan egin daitezkeen.
  - Eskubide hau bete dadin zainduko du Ministerio fiskalak, adingabeari behar duen laguntza emanaz.
- Adingabeak eskubidea du Justizia Administrazioiko agintari eta funtzionarioek berari datzekion jardunei buruz gorde beharreko erreserba gorde dezaten, jardun horiek haren intimitatea eta irudi ona gordetzeko moduan egin beharko dira-eta beti.

### Ezinduen babesa

- Zentzumen, gorputz edo adimeneko edozein ezintasunek erasandako herritarrak oso-osorik baliatu ahal izango ditu Gutun honetan eta prozedura-legeetan aitortzen diren eskubideak.
  - Legearen arabera behar-beharrezkoa denean bakarrik agertu behar izango du organo judizialean.
  - Eraikin judizialek bertan sartu eta egoteko modua erraztuko duten zerbitzu lagungarriez hornituak egon behar dute.
- Gor nahiz mutua den herritarrak eta gutxi ikusten duenak edo itsua denak eskubidea dute zeinu-interpretatzaile bat erabiltzeko, bai eta bestelako baliabide teknologikoak ere, eskatutako informazioa modu ulergarrian eskuratzen eta komunikazio-egintzak eta parte hartzen duen bestelako prozesu-jardunak behar bezala gauzatzen laguntzen badute.
  - Bideo-testuak, testu-telefonoak, dokumentuak brailera itzultzeko sistema, soinuak grabazioak edo antzeko baliabide teknikoak erabiltzea sustatuko da.
  - Arreta bereziarekin egiaztatuko da hartzaileak komunikazio-egintzaren berri benetan izan duen, eta, behar izanez gero, egintzaren edukia ozenki irakurriko da.

## Etorkinak justizaren aurrean

- Atzerritarrak eskubidea du Justizia Administrazioan diharduten guztiek entzun diezaioten, Gutun honetan ezarritakoaren arabera eta inolako diskriminaziorik jasan gabe arraza, hizkuntza, erlijio edo sinesmeneko arrazoiengatik, batez ere adingabea baldin bada eta Espainiak sinatutako nazioarteko hitzarmenek xedatzen dutena betez.
  - Interprete bat erabiltzeko eskubidea bermatuko zaio atzerritarrari, baldin eta gaztelania edo Autonomia Erkidegoko berariazko hizkuntza ofiziala ez badaki, eta itaundu egin behar badute edo deklarazioren bat egin behar badu, edota ebazpenen bat pertsonalki ezagutarazi behar bazaio.
- Espainiako atzerritar etorkinek Justizia Administrazioaren aldetik babes egokia jasotzeko eskubidea dute, dena delako arrazoiengatik parte hartzen duten jardun prozesalen esanahia eta garrantzi juridikoa ulertzen dutela segurtatzeko.
  - Epaille eta magistratuak, eta, orobat, Ministerio Fiskala, eskubide hau betetzeaz arduratuko dira une oro.

## III. Konfiantzazko harremana Abokatu eta Prokuradoreekin

### Portaera deontologikoki zuzena

- Herritarrak eskubidea du abokatuak kalitatezko zerbitzu profesionala eman diezaion agindutako defentsa-eginkizunean, bai eta prokuradoreak ere jurisdikzio-organotan bere interesak ordezkatzean.
- Herritarrak eskubidea du deontologia profesionalaren aurkako portaerak abokatuen edo prokuradoreen elkargoetan salatuzko, bai eta salaketaren emaitza behar bezala arrazoitutako ebazpen bidez jakiteko ere.
- Abokatu edo prokuradoreari jardun profesional batengatik diziplinazko zehapenen bat ezarri bazaio, eta zehapena ez bada ezereztu, herritarrak eskubidea du dagokion elkargo profesionalak zehapenaren berri eman diezaion.
  - Elkargo bakoitzak bere sistema finkatuko du profesional bati Estatuko lurraldean ezarri eta ezereztu ez zaizkion diziplinazko zehapenak benetan ezagutu ahal izan ditzan herritarrak.
- Herritarrak eskubidea du ordezkatzeko, aholkatzen edo defendatzen duten profesionalak zorrozki gorde ditzaten eginkizunak betetzean berak azaltzen edo fidatzen dizkien sekretu guztiak.

### Bezero informatua

- Herritarrak eskubidea du alde zuzenetik jakiteko hautatu duen profesionalaren esku-hartzea gutxi gorabehera zenbat kostatuko zaion eta nola ordaindu beharko duen.
  - Aurreko paragrafoko puntuak jasotzen dituen aurretiazko aurrekontu bat eman behar diote abokatuek eta prokuradoreek

- beren bezeroari. Horretarako, mandatu profesionaleko orrien erabilera egokiro arautu eta sustatuko da.
- Agindutako auzien kontu zehatza emateko galdata ahal izango dio bezeroak prokuradoreari.
- Prozeduraren egoerari eta ematen diren ebazpenei buruzko informazio zehatz eta xehakaturik lortzeko eskubidea du herritarrak abokatuaren eta prokuradorearen aldetik.
  - Aurkezten dituen idazki guztien eta jakinarazten zaizkion garrantzizko ebazpen judizial guztien kopia eman behar dio profesionalak bezeroari.
  - Jurisdikzio-organo batean izandako jardun ororen ondorioez galdetu ahal izango dio herritarrak abokatuari.
  - Abokatu-elkargoen mendeko orientazio juridikoko zerbitzuak sustatuko dira; zerbitzu horiek eginkizun gehiago izango dituzte, herritarrak abokatuarekiko konfiantzazko harremanean dituen eskubideei buruzko informazioa izan dezan.
- Herritarrak eskubidea du, organo judizialean edozein uzi egikaritu aurretik, abokatuak edo prokuradoreak informazioa eman diezaion prozesuaren kostuak ordaintzera kondenatua izanez gero etorriko litzaizkiokeen ondorioei eta gutxi gorabeherako zenbatekoari buruz.
  - Elkargo profesionalen prozesu bakoitzaren kostuen gutxi gorabeherako batez besteko zenbatekoari buruzko aurreikuspena egingo dute, prozedura-motan eta prozeduraren konplexutasunean oinarrituz, eta, gero, aldiro-aldiro eguneratu egingo dute aurreikuspen hori.

### **Doako justizia kalitatezkoa**

- Herritarrak eskubidea du behar adina kalifikatutako abokatu batek doan aholkatu eta defenda dezan eta prokuradore batek ordezkari dezan, legearen arabera doako laguntza juridikoa izateko eskubidea duenean.
  - Izendatutako profesionalak eginkizuna zuzen betetzen duela bermatu behar du elkargo bakoitzak.
- Laguntza juridikoa doakoa denean herritarrak eskubidea du ofiziozko txandaren arabera izendatutako profesionalari kalitatezko prestakuntza galdatzeko.
  - Eskubide hau segurtatzeko hartu beharreko neurriak hartuko dituzte abokatu-elkargoek.

### **Eskubide-Gutunaren eraginkortasuna**

- Gutun honetan aitortutako eskubideak bete daitezela galdatzeko eskubidea dute herritarrek. Gutun honi lotuak egongo dira epaileak eta magistratuak, fiskalak, idazkari judizialak, auzitegi-medikuak, funtzionario publikoak, abokatuak, prokuradoreak eta Justizia Administrazioarekin lan egiten duten gainerako pertsona eta erakundeak.
- Justiziako Ministerioak, gai honetan eskumenak dituzten autonomia-erkidegoek, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak, Estatuko Fiskaltza



Nagusiak eta elkargo profesional eskudunek Gutun honetan aitortzen diren eskubideen eraginkortasuna eta errespetu osoa bermatzeko egoki dena xedatuko dute, eta hornitu beharreko baliabideak hornituko.

- Diputatuen Kongresuak, Justizia eta Barne Batzordearen bitartez, jarraipen eta ebaluazio etengabea egingo du Gutun hau garatu eta betetzen dela egiaztatzeko, eta, horretarako, aldiro-aldiroko informazioa emango diote Gobernuak eta eskatzen dien Estatuko organoek eta erakunde publikoek. Herritarrek Justizia Administrazioaren funtzionamenduari buruz egiten dituzten kexa, erreklamazio eta iradokizunen aipamen espezifikoa eta nahikoa xehakaturia egingo du Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak Gorte Nagusiei urtero aurkezten dion txostenean.